

# ESKLABOTZA MUNDU ISLAMIKOAN

Historiako Gradua

Erdi Aroko Saila


Gradu Amaierako Lana

2020-2021

Tutorea: Jesus Lorenzo Jimenez

Egilea: Jokin Leunda Prieto

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **AURKIBIDEA:**

<b>Abstract</b>	1-2
<b>1. Sarrera</b>	2-3
<b>2. Gizarte antolaketa</b>	4-5
<b>3. Erlijioa eta legea</b>	
3.1. <i>Zer dio Qurʾān-ak?</i>	6-7
3.2. <i>Askatasuna eta eginkizunak</i>	7-8
3.3. <i>Zer da esklabotza mundu islamikoan?</i>	8-9
3.4. <i>Teoria eta praktika</i>	9-10
3.5. <i>Gizarte esklabista edo esklaboak dituen gizarterea?</i>	10-12
<b>4. Truke sareak eta salmenta</b>	12-15
<b>5. Esklaboen egitekoak eta estatusa</b>	16
5.1. <i>Nekazal/hiritar munduko esklaboak</i>	17-19
<b>6. Zanỵ errebolta</b>	20-22
<b>7. Ondorioak</b>	22-23
<b>8. Bibliografia</b>	24-26
<b>9. Lehen mailako iturriak</b>	26

## **ABSTRACT:**

Esklabotzaren terminoa oso elastikoa da, are gehiago Erdi Aroan. Modu askotan uler eta interpreta daiteke. Lan honen helburua Erdi Aroko mundu islamikoko esklabotzan murgiltzea da eta honen aurpegiak azaltzea eta interpretatzea. Lan honekin hastean eta iturriak irakurtzean, hainbat galdera planteatu nizkion neure buruari: Erdi Aroko mundu islamikoa gizarte esklabista zen ala esklaboak zituen gizartea zen? Zer diote iturri klasikoek gai honen inguruan? Hauek diotena betetzen da ala kontraesanak daude? Historialariak bat al datoz mundu islamikoko esklabotza definitzean? Nire hipotesia honako hau zen: mundu islamikoa esklaboak dituen gizartea da, oinarri teologikoak dituen batik bat. Oro har, lan honen helburu nagusia historia soziala egitea da, kasu honetan Erdi Aroko mundu islamikoko esklabotza aztertuz.

Hipotesi hau frogatzeko lehenik eta behin iturri klasikoetara jo, lehena noski *Qurʾān*-a batik bat esklabotzarekin lotura duten pasarteak irakurri ditut. Honetaz gain, Lege Islamikoaren hainbat interpretazio ere irakurri beharrekoak dira. Bi iturri hauek dira mundu islamikoko esklabotza ulertzeko oinarriak. Hauetaz gain noski Bernard Lewis edota William Phillips bezalako autoreak funtsezkoak dira gai hau ulertzeko orduan.

Lanaren emaitza nagusiei dagokienez, nire hipotesia frogatu dut, hau da, mundu islamikoa esklaboak zituen gizartea zen, ez zen gizarte esklabista. Gizarte hau oinarri teologikoetan zegoen antolatua, baita esklabotza ere. Hala ere, *Qurʾān*-ean hainbat kontraesan aurkitzen dira. Adibidez, alde batetik *Qurʾān*-ak dio esklaboa ondo tratatu behar dela, baina bestalde dio jaunak esklaboaren heriotzaren gaineko kontrola duela. Bestalde, nabarmendu beharra dago ere normalean gizarte mota askotan bezalaxe, jaiotzak ezartzen zuen indibiduoaren posizioa gizartean. Hala ere, hainbat esklabok goi mailako karguak okupatu zituzten, sarritan beraien jaunen alabekin ezkondu ziren eta hainbat testu klasiko daude jaunak bere esker ona adieraziz bere menpekoari. Hala ere, esklaboaren estatusa beti buruan eduki behar dugu, esklaboak ziren, beraien jaunaren menpekoak eta batzuetan hauen aurka eta beraien egoeraren aurka aldarrikatu zutenak, azken honen adibide Zany errebolta.

Lan honetan esklabotzaren aniztasuna eta desberdintasunak azaltzen saiatu naiz. Ondorio nagusi gisa aipatzekoa da esklabotza gizarteko alor guztietara iristen zela, hain zuzen ere, ez ziren soilik ekonomiara bideraturiko indibiduoak, arlo sozialean, esaterako, beraien garrantzia eduki zuten. Etorkizunari begira lan honek hainbat galdera zabalik

uzten ditu hauen erantzuna jakiteko gaia ikerketara bideratu beharko litzatekeena. Esaterako, emakume esklaboen garrantzia ohaide izateaz gain edota esklaboen errebolten ingurukoak.

## **1. SARRERA:**

Esklabo eta esklabotza terminoen inguruan sarritan eztabaidatu da. Hain zuzen ere, bi fenomeno hauek ikuspegi ezberdinekin landu daitezke, hau da, termino elastikoak dira. Ikerlari guztiak ez daude bat esklabotza definitzerakoan eta beraz, lan honetan hainbat ikuspegi plazaratuko ditut.

Lan honen helburua Erdi Aroko mundu islamikoko esklabotza bere konplexutasunaren barruan ulertzea eta azaltzea da, honek izandako bereizgarri eta oinarri ugari kontuan hartuz. Sarritan, esklabotza termino moduan, pack berean sartzen dugu, esklabotza mota bakoitzak dituen bereizgarritasunak alde batera utziz; adibidez, mundu islamikoko esklabotzak, Europa mendebaldeko erreinu kristauekin alderatuz ezberdintasun ugari edukiko zituen, hain zuzen ere, batez ere lege islamikoan eta *Qurʾān*-ean oinarritzen baita. Mundu islamikoko esklabotza ulertzeko, ezinbestekoa da jatorrizko testuak irakurtzea eta hauen inguruan egin diren interpretazioak ikertzea. Horrexegatik, testu klasikoetan murgildu naiz esklabotzaren kontzeptua hobekien azaltzeko helburuarekin. Testu klasiko hauetan ere hainbat kontraesan aurkituko dira gaia gehiago tratatzen dutenak, horrexegatik, ikuspuntu ugari adierazten saiatu naiz.

Jarraituz, legea eta testu sakratua ikertzeaz gain, lan honek ere beste helburu batzuk ditu, hain zuzen ere, Erdi Aroko esklaboen egoera eta bizi-baldintzak azaltzea, hau da, pertsonaia handiak alde batera utziz, garai hartako gizarte talde zapaldu baten egoera azaltzea (gehiengoaren kasuan, behintzat). Mundu islamikoan zehar, esklabotza mota ugari egon zirela esan daiteke; batzuk lurrari gehiago lotuak, beste batzuk, aldiz, familia bati orientatuak. Ingurune hauetan, hainbat fenomeno eta gertakari berezi gertatu ziren, gaur egungo pentsamoldearekin ezinezkoak iruditzen zaizkigunak. Adibidez, esklaboek goi mailako karguak okupatzea edota beraien jaunen alabekin ezkontzea. Hala ere, esklaboen estatusa beti buruan eduki behar dugu, hau da, salbuespenak-salbuespen esklaboak ziren, sarritan gaizki tratatuak eta lan behartuak egiten zituztenak.

Beste alde batetik, interpretazio ugari eta eztabaida ugari sortu dituen gai batean ere murgilduko naiz: mundu islamikoa gizarte esklabista ala esklaboak zituen gizartea zen? Historialari eta ikerlariak hainbat parametro erabili dituzte gizarte esklabistak

definitzerako orduan; mundu islamikoaren kasuan hainbat autore erreferentzia izanik gizarte islamikoa definitzen saiatuko naiz.

Beraz, Mundu islamikoko esklabotzaren aurpegi desberdinak erakusten saiatu naiz, bere konplexutasunean dituen ezaugarri ezberdinetan enfokatuz. Horretarako, esan bezala, lege islamikoa, *Qur'ān*-a, teoria/praktika, Erdi Aroko idazle arabiarren testu klasikoak eta gaur egun ikerketa ezberdinetan oinarrituz nire proiektua aurrera eraman dut Erdi Aroko mundu islamikoko esklabotzaren ezaugarriak plazaratuz. Azken finean, lan honen helburua historia soziala egitea izan da, hau da, Erdi Aroko esparru eta testuinguru jakin bateko menpekotasunean bizi ziren indibiduen egoera ulertzea, interpretatzea eta azaltzea. Kasu honetan, esklaboen eta esklabotzaren gorabeherak ikertzea.

## **2. GIZARTE ANTOLAKETA:**

Goi Erdi Aroko Mundu Islamikoa (mediterraneanarra batik bat) hiritartzat hartzen da, hain zuzen ere, Erdi Aroko mundu islamikoa hiriz osaturiko zibilizazioa baitzen (Goitein, 2000: 75; Lewis, 1990: 18). Noski, desberdintasun sozialez markaturiko gizartea zen. Jurista musulmanek (*al-faqīh*-ak) gizarte antolaketaren desberdintasunari azalpena eman nahi izan ziotenean, bi estratu sozial mailakatu zituzten. Alde batetik, klase altuko negozio gizonak (merkatariak eta bankariak adibidez). Bigarrenik, esku langileak (zapatariak, ehuleak...). Aditu erlijiosoak ez zuen klase sozial zehatz bat osatzen, aldiz, nekazariak ez ziren erabat gizartearen parte kontsideratzen (Goitein, 2000: 75). Hala ere, aberatsak soilik ez ziren lur jabeak, jende xumea ere gai zen lur eremu jakin baten jabe izateko eta hauek beraien kabuz administratzeko. Honela, mundu islamiarreko hiritarra ez zegoen guztiz landa mundutik aldentua, hain zuzen ere, prozesu primarioen ekoizpenean guztiz murgildurik zeuden (Goitein, 2000: 76).

Genizako<sup>1</sup> txostenen arabera, sakabanaketa ez zen hain sinplea. Aipaturiko bi maila horien artean, hainbat kapa eta bereiztasun nabarmentzen ditu txosten honek. Hala ere, banaketa sozial hau Jainkoak ezarritako ordena zen, beraz berauentzat printzipioz naturala izan beharko luke (Goitein, 2000: 76).

Mundu islamikoaren piramidearen puntan *al-ṭabaqa* deituriko taldea zegoen, hau da, goi klasea. Talde hau ofizialek, medikuek, abokatuek, negozio-egileek osatzen zuten. Bestalde, mundu islamikoan eskulana ez da beti beheko estratuari lotu beharko; erdi eta goiko estratuek ere eskuekin ere jarduten baitzuten (Goitein, 2000: 76-77).

Beraz, indibiduoaren gizarte maila zerk ezartzen zuen? Lehen bereizgarri nagusia familiaren jatorria zen. Honetaz gain, juduen artean gertatzen zen moduan erudizioa eta erlijiositatea beste faktore batzuk ziren. Merkataritza praktikak estatus soziala hobetzeko tresna ere bilakatu ziren; gizarte kosmopolitetan balio handia eman zitzaienten, hain zuzen ere, etengabe aldatzen ari zen gizartea baitzen eta arrisku eta ziurgabetasun askori aurre egin zioten. Azkenik, ongizate publikoaren alde egindako gastuak egin zituztenak ere

---

<sup>1</sup> Geniza hitza hebrearrez dokumentuak gordetzeko gela esanahi du; dokumentu hauek balio sakratu bat izan zezaketen. Hala ere, ez zen beti horrela izan. Batzuetan ere txekeak, partiturak... ere gordetzen zituzten. Genizako txostenak, batez ere, XI eta XII. mendeetako musulmanen menpean zeuden komunitate juduen bizimoduaren inguruko eta antolaketaren informazio ugari eskaintzen du, hain zuzen ere, Persia, Egipto edo Ipar Afrikako komunitateen inguruan. Bertan, eskutitzak, kontratuak, kontaktuak, diru kontuak... erregistratzen dira (Goitein, 2000: 7).

begi onez ikusten ziren beraien familia eta klana posizio berezia batean ezarriz (Goitein, 2000: 77).

Bestalde, sarritan semeak aitaren profesio berean lan egiten zuen, bai langile moduan, bai kide bezala. Behin aita hil ostean, bera bilakatuko litzateke tailerraren buru. Era berean, medikuak, abokatuak edo zerbitzari familiak aurkitzen dira (Goitein, 2000: 79). Beraz, belaunaldiz belaunaldiko jarraikortasuna ikus dezakegu.

Orokorrean, Genizako txostenetan bost talde bereizten dira. Gizarte talde boteretsua deitu dezakeguna (profesionalak, enpresariak), goi-erdi klasea, erdi-behe klasea (eskale deituak), hirietako langileak eta azkenik, artisauak (Goitein, 2000: 79). Estatusari dagokionean, teorian behintzat, esklabo bat ez zen sekula libre bat baino maila sozial handiagokoa izango (Franz, 2017: 64). Hala ere, ondoren azalduko dudan moduan, klase altuko esklaboak egon ziren, kargu garrantzitsuetan jardun zutenak.

Ondorioz, jaiotzak markatzen zuen pertsona baten estatusa, hala ere ondoren azalduko dudan moduan aldaketa ugari egon ahal ziren. Goitein-ek dio ezin daitekeela garaiko mundu feudalarekin konparatu; zentzu horretan behintzat mundu islamikoa ez baitzen hain zorrotza eta piramidean eskalatzeko aukera gehiago baitzeuden. Esan daiteke mundu islamikoko gizarte egitura ez zela feudalismoko sistema itxi eta mugiezina, aldiz, maila aldaketak onartzen zituen gizartea zela, esaterako, esklaboekin gertatzen zen moduan. Aberastasunaz gain, aipaturiko faktoreak ere kontuan hartzen zituzten: jakintza, erlijiositatea, zerbitzu publikoak sortzea... (Goitein, 2000: 80).

### **3. ERLIJIOA ETA LEGEA:**

#### *3.1. Zer dio Qur<sup>ʿ</sup>ān-ak?*

Mundu Islamikoa gizarte esklabista al zen? Edo esklaboak erabiltzen zituen gizartea zen? Zer dio Qur<sup>ʿ</sup>ān-ak? Zer zen esklaboa mundu islamikoan?

Alde batetik, Qur<sup>ʿ</sup>ān-ak jaun eta esklaboaren arteko desberdintasuna onartzen zuen. Bestetik, aldiz, agindurik eman gabe, esklaboarekiko ontasuna gomendatzen du. Esklaboaren askapenak pekatuak kanporatuko lituzke, hala ere, beste batzuetan askapena esklaboaren onginahiagatik egiten zen (Lewis, 1990: 6-7).

*“And God has preferred some of you over others in provision (rizq); but those that were preferred shall not give over their provision to that their right hands possess (mā malakat aymānuhum), so that they may be equal therein.”* (Arberry, 1955: 16:71 [73])

Jarraituz, esklaboak aipatzeko nahian, “To that their right hands possess” esaldia Qur<sup>ʿ</sup>ān-ean zehar espresio ohikoena da esklaboei erreferentzia egiteko orduan (Franz, 2017: 60); argi adieraziz esklaboak jaunaren menpe daudela. Bestalde, Qur<sup>ʿ</sup>ān-ak desberdintasun nabaria egiten du askeen eta menpekoen artean, azken hauen jabetzari erreferentzia eginez. Gainera, Qur<sup>ʿ</sup>ān-aren arabera, esklaboak ez lirateke gai izango ofrendak egiteko, beraien menpekotasuna dela eta (Franz, 2017: 60):

*“God has struck a similitude: a servant possessed (ʿabdan mamlūkan) by his master, having no power over anything, and one whom We have provided of Ourselves with a provision fair, and he expends of it secretly and openly. Are they equal?”* (Arberry, 1955: 16:75 [77])

Beraz, Qur<sup>ʿ</sup>ān-ak esklabotzaren existentzia frogatzen du, Arabia aurre islamikoan, gainontzeko Ekialde Ertaineko gizarteen opresio praktika bera burutuz (Franz, 2017: 61). Era berean, Qur<sup>ʿ</sup>ān-ak jabe eta esklaboaren arteko harreman ona bultzatzen du, nire ikuspuntutik nabarmendu beharrekoa dena Erdi Aroko gizarte kristauarekin alderatzen badugu. Hala ere, Franz-en hitzetan biak batera bizitzea ez luke adiskidetasunaren sinonimo izan beharko, baina esan bezala, egia da Qur<sup>ʿ</sup>ān-ak esklaboa ondo tratatzea eskatzen duela. Batzuetan, Qur<sup>ʿ</sup>ān-ak ere jabe beraren esklaboen arteko ezkontza bultzatzen du (Franz, 2017: 62):

*“Serve God, and associate naught with Him. Be kind to parents, and the near kinsman, and to orphans, and to the needy, and to the neighbour who is of kin, and to the neighbour who is a stranger, and to the companion at your side, and to the traveller, and to that your right hands own (mā malakat aymānukum).”* (Arberry, 1955: 4:36 [40])



Esklaboa aske bihurtzeari dagokionean, ohitura aurre islamikoetara jotzen du *Qurʾān-ak*. Honen adibide, gerra gatibuak esklabo bilakatzea beraien bizitza salbatuz (Franz, 2017: 65). Bestalde, *Qurʾān-aren* beste pasarte batzuekin beste interpretazio bat egin daiteke, hau da, pasarte hauen arabera, esklaboari askatasuna ematea Jainkoaren begietan ekintza atsegina izango litzateke (Franz, 2017: 66):

*“Giving alms (māl) for (the freeing of) slaves (riqāb) counts among the proofs of true belief”* (Arberry, 1955: 2:177 [172])

Jarraituz, beste hainbat faktore egon daitezke esklaboa libre bilakatzeko: baliogabeko juramentu bat barkatzeko, jabe sinestun batek dibortzio-deklarazio bati ekiten dioenean, jabeak beste musulman bat nahigabe hiltzen duenean (Franz, 2017: 66). Adibidez, azken hau soilik esklaboa musulmana denean konpentsatu daiteke; errudunak ezingo izan balu konpentsatu, bi hilabetez baraua egin beharko luke (Arberry, 1955: 4:92 [94]). Beraz, ikuspegi honetatik *Qurʾān-ak* moralitasuna eta errukia kontuan hartzen duela esan daiteke, baina ez du jabea behartzen bera jabeko esklaboa libre bilakatzera. Orokorrean, esklabotzak jasandako erregulazioek *Qurʾān-aren* jarrera guztiz partekatzen dute, hau da, bizitza bortxaezina dela (Arberry, 1955: 5:32 [35]).

### 3.2. Askatasuna eta eginkizunak:

Askatasunaren kontzeptuarekin jarraituz, beste ikuspuntu batzuk egon daitezke. Bernard Lewis-en arabera, esklabotzaren abolizioa ezinezkoa izango litzateke. Berak dioen moduan, ikuspegi musulman batetik, Jainkoak onartzen duena debekatzea, Jainkoak debekatzen duena baimentzea bezain laidoa da, eta esklabotza lege santuak baimendu eta arautzen duen estatusa da (Lewis, 1990:78). Jarraituz, Dejong-en arabera, esklabotza abolitzea Islamaren sistema hankaz gora ipintzea izango litzateke<sup>2</sup> (1934: 142-43). Ikuspegi gaurkotuagoek ere Dejong-en teoriarekin jarraitzen dute. Adibidez, Hunwick eta Troutt-en arabera, (2002: 181) mundu islamikoan ez zen sekula ahaleginik egin hau abolitzearen alde, ezta esklabo merkatua eta trukea ere gelditzearen alde.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar esklaboak ondasun higigarriak zirela, baina Clarence-Smith-ek azpimarratzen duen moduan, mundu islamikoan hainbat berezitasunez osatua dago. Esan dudana bezala, ondasun higigarriak ziren, baina era

---

<sup>2</sup> Dejong-en hitzetan, esklabotza herrialde arabiarretako lege politiko, sozial, ekonomiko eta erlijiosoei atxikitua dago. Hain zuzen ere, ondoren Lewis-ek argumentu berbera erabiltzen du, hau da, erlijioak berak babesten du esklabotza eta ordena soziala ere honen baitan antolatuz dago; esklabotza arabiarren moralitasunaren barruan txertatzen zen.

berean, eskubide “mugatu” batzuk zituzten (Clarence-Smith, 2006: 2). Esklaboen artean hainbat bereizketa ikus daitezke, hau da, gizarte-rolak esleitu zitzaizkien, adibidez, emirrek aginduriko lana edo egoera txarretan baztertuen artean. Batzuetan, agintariak esklaboak zituzten arlo militar edo administratiboan jarduten zutenak, eta beste batzuetan, tropen agintean zeuden, hau da, jauna bere esklaboaz fidatzen zen, nahiz eta estatus baxukoa gizarteko kidea izan (Clarence-Smith, 2006: 2). Beraz, argi ikus daiteke mundu islamikoko esklabotza ez zela homogenea izan, eta batzuetan legeak edo teoriak dioena ez zela beti bete.

Jarrantuz, kasu berezi hauek ez dira orokortu behar. Egia da oso berezia egiten zaigula esklabo batek ardura altuko karguak okupatzea, edo gortean ibilbide luzea egitea, baina esklaboen estatusa buruan eduki behar dugu; aipatu dudan moduan, ondasun higigarriak ziren. Adibide moduan, betebeharrak zituzten, esklabo-soldadu garraio lanak egin behar izan zituzten, batzuetan ere beraien jatorrizko herrialdea ahaztea behartzen zitzairen edota familia eratzea ukatzen zieten (Clarence-Smith, 2006: 3; Pipes, 1981: 90-92, 97-99). Jarrantuz, eunuko ugari hil ziren zikiratze prozesuan eta bizirik jarraitu zuten ugari arazo fisiko eta mentalak izan zituzten (Clarence-Smith, 2006: 3). Neska abeslari ugari ere prostituziora behartu zituzten. Jarrantuz, *ḥadīṭ*-ak zigor-korporalak onartzen zituen eta arabiar esaera zahar baten arabera, esklaboak makilaz jo behar ziren (Clarence-Smith, 2006, 4).

Franz-ek konparaketa interesgarria egiten du Antzinako Grezia-Erroma eta *Qurʾān*-ak esaten duenaren artean. Aristotelesek, adibidez, esaten zuen askatasuna eta esklabotza gizonaren berezko ezaugarriak zirela, aldiz, *Qurʾān*-ak ez du inon horrelako adierazpenik egiten. Beraz, Antzinako Erroman bezalaxe, ez jabe erromatarrek, ezta jabe musulmanek ere ez zuten beraien jabetzako esklaboen heriotzaren gaineko kontrola (Franz, 2017: 68).

### *3.3. Zer da esklabotza mundu islamikoan?*

Esklabotza, hitza bera, oso termino elastikoa da menpekotasun egoera ugarietan erabili daitekeena: plantazioetako esklabotza, esklabotza domestikoa, esklabotza militarra, zorpeko esklabotza, soldatapeko esklabotza, etab. Historialariek termino honen

inguruan sarritan eztabaidatu dute ea zein den “benetako esklabotza” definitzeko asmoz (Lenski, 2018: 47)<sup>3</sup>.

Hasteko, *Qurʾān*-ak ez du definitzen esklabotza eta hitz honek testuinguru honetan duen esanahia ez dago batere argi, sarritan kontraesanez betea aurretik adierazi dudan adibideetan ikus daitekeen moduan (Franz, 2017: 68). Orokorrean, gure ikuspegi europar gaurkotu honetan oso arraroa eta zaila egingo litzaiguke zenbait esklaboren egoera ulertzea; adibidez, nola da posible esklabo batek kargu altuko postuak okupatzea? Edo beraien erreinu propioa eratzea? Oraindik hainbat galdera irekirik daude gai honi dagokionean.

Beraz, esklabotzari “definizio” bat ematearren lana zentratzeko asmotan, Franz-ek aipaturiko lau puntuak guztiz egokiak iruditzen zaizkit:

- Salmenta
- Legeak markaturiko estatusa
- Jabe-esklabo harremana
- Jabearen portaera

Lehen puntuarekin hasiz, esklaboak, erosi, saldu eta jabea izan dezaketen gizakiak dira. Jarraituz, lege islamikoak beraien gutxiagotasuna definitzen du, hau da, esklabo izateagatik estatus baxuko gizakiak dira. Hirugarren puntuari dagokionez, jabe eta esklaboaren arteko harremana guztiz pertsonala da, familia eta etxea baten esparruan eratzen zena, hots, esparru familiarrean eraturiko erlazioa. Azkenik, jabeak zintzotasunez jokatu behar zuen bere menpekoarekin, esklaboaren emantzipazioa aukerazkoa izanik (Franz, 2017: 69). Esklabotzaren sendotzea 1000-1500 urte bitartean burutu zen mundu islamikoan, hau da, urte horietan zehar gizarteak esklabo eta askeen arteko banaketan onartu zuen (Rosenthal, 1960: 122).

### 3.4. Teoria eta praktika:

Hasteko, Erdi Aroko esklabotzaz hitz egiten denean, sarritan mundu islamikoko esklabotza beste modu batean interpretatua izan da, hau da, esklabotza beste forma edo

---

<sup>3</sup> Lenski-k, Orlando Patterson soziologoaren *Slavery and Social Death* lanetik ateratzen du esklabotzaren definizioa: “*Slavery is the permanent, violent domination of natively alienated and generally dishonored persons*” (Patterson, 1985:13).

beste praktika batzuekin burutu zela. Logikoa iruditzen zait beste ikuspegi batetik ikertu izana lege islamikoak eta *Qurʾān*-ak dioena kontuan hartzen badugu.

Jarraituz, nabarmendu beharra dago Islama ezarri zenerako, esklabotza jada existitzen zen instituzio bat zela (Franz, 2017: 51). Adibidez, musulmanak ez ziren gatibuak eta horiek esklabo bilakatzea Jihad-arekin guztiz loturik zegoen, hau da, Jainkoaren ibilbidean egiten zen akzio militar gisa ulertzen zuten; *fī sabīli llāh* izendatua arabieraz (Franz, 2017: 54). Beraz, printzipioz esklabotza Islamari guztiz loturiko fenomeno zen teorian. Hala ere, esklabotzaren praktika marko juridikoak eta instituzioak eratzean areagotu zen (II/VIII. eta III/IX. mendeetan zehar). Adibidez, Muḥammad-ek Medinako *umma* sortzean, *Qurʾān*-eko hainbat pasartek balio legala hartu zuten, horien artean esklabotzari loturikoak, adibidez. Hiru mendeetan zehar, *sunna* eratu zen, hau da, tradizioa eta *Qurʾān*-ak ezarririko ohiturak eta musulman on batek jarraitu beharrekoak. III./IX. mendeetarako Teoria Islamikoak bai *Qurʾān*-a, baita *ḥadīth*-a ere onartu zituen lege nagusi bezala (Franz, 2017: 58).

### *3.5. Gizarte esklabista edo esklaboak dituen gizarteak?*

Jarraituz, Noel Lenski historialariak gaur egun 1960ko hamarkadan Moses Finley historialariak esklabotzaren inguruko dualismoaren definizioa kontuan hartzen du, hau da, gizarte esklabista eta esklaboak dituzten gizartearen arteko desberdintasunak azaldu zituen. Bereizketa hau Finleyk 1968an *Encyclopedia of World Sociology*-n argitaratu zuen. Bere esanetan, antzinako Grezia, antzinako Erroma edota Hego-Ameriketako edota Karibeetako gizarteak, gizarte esklabistak izango lirateke, aldiz, antzinako Egipto, India edota Txina esklaboak dituzten gizarteak izango lirateke (Finley, 1968: 308; Lenski, 2018: 17). Ondoren, Lenski-k Finley-ren beste lan erabakigarri bat azpimarratzen du. Finleyk, 1980an *Ancient Slavery and Modern Ideology* lanean gizarte esklabisten hiru ezaugarri nagusiak definitu zituen: esklaboak, gutxienez, gizartearen %20a izan behar zutela, hau da, biztanleria osoaren kantitate handi bat; bigarrenik, esklaboek funtzio garrantzitsua izan behar zutela soberakinen ekoizpenean; eta azkenik, esklaboek garrantzia izan behar zutela kulturaren (Finley, 1980, 79-82; Lenski, 2018: 17). Beraz, printzipio hauek jarraituz, mundu Islamikoko esklabotza ez litzateke gizarte esklabista izango.

Beste alde batetik, gizarte ezberdinen arteko konparaketa egiten badugu, Goiteinek dioen moduan, mundu Islamikoan burutzen den esklabotza, Erromako edo

Ameriketako plantazioetako esklabotzarekin ezin dugu alderatu. Mundu Islamikoan esklabotza ez zen, ez industrial, ezta nekazaritzari loturikoa ere. Era berean, Goiteinen arabera, esklabotza indibiduala zen, ez zen kolektiboa, hau da, Erroman gertaturikoaren guztiz kontrakoa. Gizartearen %30a esklaboa izango balitz, gizarte esklabista batez hitz egingo genuke, baina ez da ez al-Andalusen kasua, ezta mundu islamikoarena ere. Ekonomia mailan, gizarte esklabista batekin alderatuz, esklaboek eragin txikiagoa zeukaten. Mundu Islamikoko esklabotza zerbitzu pertsonalari lotua zegoen, eta adibidez, jabea kargu altukoa zenean, esklaboak abantaila ugari jasotzen zituen (Goitein, 2000: 130-131; De la Puente, 2008: 187-188; Imamuddin, 1981: 30; Phillips, 2010: 151). Al-Andalusen, esklabo gehienak artisauak, zerbitzariak eta ohaideak ziren. Beste batzuek, aldiz, administrazioan egin zuten lan eta beste batzuk arlo militarrean. Esklaboak, orokorrean, gizartean guztiz integraturik zeuden, bai familia bizitzan, baita ondasunen produkzioan ere (Phillips, 2013: 27).

Al-Andalusen kasuan, bisigodoen garaian torturatuak eta meziprezatuak izan ziren esklabo ugari Islamaren agindupean familia kide gisa tratatuak izan ziren eta sarritan familia kide bilakatzen ziren eta jaunaren alabarekin ezkontzen ziren; honela jada aipatu dudan moduan, esklabo ugarik kargu altuko postuak okupatzen hasi ziren (Imamuddin, 1981: 30). Arabian, esklaboa aske bilakatu ostean familia kide izaten jarraitzen zuen (lotura honi *walā*<sup>4</sup> deitzen zioten) bere jauna izandakoaren jarraitzailea bihurtuz. Gainera, jaunaren tribuaren izena hartzen zuen. Gainera, jaunaren semeen hezkuntza sarritan esklabo edo esklabo ohiaren esku geratu zen. Jarraituz, jaunaren semea esklaboen semeekin harremanetan jartzen omen zen. Beste kasu berezi bat aipatzearen, jauna hiltzen bazen, aitarik gabeko semearen zaindari esklaboa bilakatzen zen boterea eta jabetzak berreskuratzen lagunduko ziona (Goitein, 2010: 179-180).

Sarritan, eskubide ia-legalak ere izan zituzten (Lewis, 1990:7). Esklaboen artean eunukoak ere aurkitzen ziren; hauek ere posizio pribilegiatuez gozatu zuten. Eunukoak politikaren parte izan ziren al-Andalusen eta aberastasun ugari pilatu zituzten. Esklaboek ere palazioko bizitzan bere eragina izan zuten. Adibidez, Hakam II.a hil ostean, Hišām II.aren ondorengotza oztopatu zuten. Adibidez, palazioetako ofizialak eta zaintzaileak izan ziren. Bestalde, Muḥammad ibn Abī Ṣāmir, hau da, Almanzor ospetsuaren familiaren

---

<sup>4</sup> Esklaboa aske bilakatzean oraindik bere jauna izandakoarekin lotura izaten jarraitzen zuen. Hain zuzen ere, ugazaberia edo klientelismoa. Lotura honi arabieraz *walā* deitzen zaio. Harreman hau hereditarioa zen eta hauen seme-alabak ere loturik egongo ziren (Mañillo, 1996: 76).

gainbeheraren ostean, Denia, Valentzia eta Tortosan printzipatu independenteak eratu zituzten (Imamuddin, 1981: 30-31). Adibidez, al-Andaluseko esklabotzaren unerik gorena X. mendeko Sevillan ikus dezakegu, biztanleriaren %10a osatzen zuten (Phillips, 2010: 151). Beraz, ikuspegi hau kontuan hartzen badugu, argi geratzen da ez zela gizarte esklabista.

#### **4. TRUKE SAREAK ETA SALMENTA:**

Truke sareari dagokionez, nahiz eta mundu islamikoko esklabotza ezin den Erromakoarekin alderatu, esklaboak, adibidez, al-Andaluseko ohiko kideak ziren. Adibide moduan, esklabo salmentaren edo gudetako kristau gatibuen datuak aurkitu dira, sarritan esklaboen jatorri nagusia guda izanik (Phillips, 2010: 153; 2013: 14). Aipatzekoa da esklabotza Islamaren gorakadaren aurretik, jada bazegoela Penintsula Arabiarrean, hain zuzen ere, musulmanek esklabotza praktikatzen ziren lurraldeak konkistatu zituzten eta esklabotza mundu Islamikoan txertatu zuten. Ondoren, VIII. mendean Iberiar Penintsulan sartzean eta buruzagi bisigodoak garaitzean Iberiar Penintsula mundu islamikoaren parte bilakatu zen eta beraz, arabiar hizkuntza eta legeak ezartzen hasi ziren. Adibide moduan, konkista ostean, kroniken arabera, Damaskoko kalifatoak 30.000 esklabo kristau jaso zituen Iberiar Penintsulako konkistatik (Phillips, 2013: 25). Jarraituz, kristautasunaren eta Islamaren arteko gatazkak eragin handia izan zuen esklabo sareetan. Distantzia luzeko esklabo sareak sortu ziren, hauen artean kristau, judu eta paganoak ziren nagusi; hala ere, denborak aurrera egin ahala, eslaviarrak izan ziren, esklaboen artean, kantitate handiena. Hain zuzen ere, “slave” izendapena hauetatik dator; *ṣaqāliba* arabieraz (Phillips, 2013: 25-26). Aipaturikoez gain, Itsaso Beltzean, Italian edota Frantzia hegoaldean ere esklaboak bereganatzen hasi ziren (Phillips, 2013: 69).

Iberiar Penintsula adibide moduan harturik, konkistaren hasieran jada musulmanek esklaboak eta zerbitzariak ekarri zituzten, gainera jatorri anitzekoak: etiopiarrak, armeniarak, egiptiarrak eta nubiarak; azken hauek gehiengoa izanik. Ondoren, IX. mendean, merkatariek esklabo kristauak eraman zituzten (Phillips, 2013: 69). Hona hemen Egipton salduriko esklabo baten akta (257/871):

*« Au nom de Dieu, clément et miséricordieux! Voici ce qu'a acheté 'Abd Alláh b. Razín al-... [de Muhammad b. Ahmad al-...: une esclave [...] nommée Yumn pour douze dinars et demi et deux qirat-s: Muhammad b. Ahmad a pris possession du prix entièrement et pleinement. 'Abd Alláh b. Razín a pris possession de l'esclave qui est devenue sienne et sa propriété. Muhammad b. Ahmad lui a garanti qu'elle n'est pas folle, ni héméralope, ni portée a s'enfuir, ni affectée de quelque vice dans ses parties sexuelles,*

*ni objet de demande, ni libre, ni volee, 'qu'elle n'a pas l'haleine fétide et qu'elle n'est pas enceinte '. Muhammad b. Ahrnad a libéré sa responsabilité vis-a-vis de 'Abd Allāh b. Razln des jambes vacillantes (de l'esclave), de ses membres contrefaits, de ses cautérisations, de ses cicatrices et de tout vice, a l'exception des défauts nommés en cet écrit. Et cela en gumada de l'année deux cent cinquante-sept. A témoigné 'Abd Allāh b. Rabs de leur reconnaissance de la totalité du contenu de cet écrit et il a écrit son témoignage de son écriture en gumada l'année deux cent cinquante-sept. A témoigné al-Husayn b. Ahmad de leur reconnaissance de la totalité du contenu de cet écrit et il a écrit de son écriture. n'est de divinité que Dieu! A témoigné Ga(far b. Ahmad de la totalité du contenu de cet écrit. Al-Husayn b. Ahmad a écrit son témoignage sur son ordre » (Rāgib, 2002: 4-5).*

Pasarte honetan, emakumezko esklabo baten salmenta prozesua erakusten du eta saltzerakoan izaten ziren baldintzak, hau da, saltzaileak ziurtatzen dio emakumea ez dagoela, ez eroa, ezta ez duela ihesik egingo, ez duela biziorik, eta ez dagoela haurdun. Prozesua “notario” batek bideraturik dago (Rāgib, 2002: 4-5).

Hala ere, esklabo hauek bi aukera izaten zituzten: esklabo gisa bizi edo mundu islamikoko beste gune batzuetara joateko aukera zuten. Orokorrean, esklaboen jatorriari erreparatuz, emakume beltzak normalean ez ziren enplegatuak izaten (Goitein, 2000: 137). Aipatu dudan moduan, esklabo gehienak Nubiar jatorria zuten, gainera nubiarren zorrozatasuna nabarmentzen zuten. Nubiarren ugaritasuna ez zen soilik Iberiar Penintsulan ikusten, mundu Islamiko osoan errepikatzen zen fenomenoa izan zen. Nubiarrez gain, Europako emakume ugari ere esklabo bilakatu ziren, konkubina bilakatuko zirenak. Emakumezkoen artean ere bazeuden jada esklabo jaiotakoak, *muwallada* deiturikoak. Kontuan hartu behar dugu amak beraien umeekin batera saltzen zirela normalean. Esklabotza afrikarra nagusitu aurretik, X. mendea baino lehenago musulmanek kristauak edo Europako paganoak erosten zituzten; XII. mendetik aurrera hasten da esklabo afrikarren nagusigoa (Phillips, 2010: 154-155; 2013: 69; Goitein, 2000: 134, 137). Hala ere, nabarmendu behar da, orokorrean, trebeziarik gabeko esklaboen jatorria Eurasiako estepa, Europa eta Saharaz hegoaldeko eremuak zirela (Lewis, 1990: 4). Paul Lovejoy-en kalkuluen arabera, 650-1500 urte bitartean, 6.000.000 esklabo beltz mugitu ziren mundu islamikoan zehar<sup>5</sup> (Clarence-Smith, 2006: 12).

Genizako txostenek merkatari juduen inguruko informazio ugari eskaintzen digute. Egindako ikerketen arabera, IX. eta X. mende bitartean merkatari juduek parte hartu zuten esklaboen salmantan. Ibn Jurradaḍbih geografo eta burokratak Rāhḍānī

---

<sup>5</sup> Clarence-Smith-ek Lovejoy eta Austenen datuak plazaratzen ditu. Ralph Austen-en arabera, 17.000.000 esklabo beltzek Sahara zeharkatu zuten (Austen, 1987: 275).

izeneko merkatari juduen inguruan mintzo da bere testigantza batean. Al-Muṣṭamid<sup>6</sup> kalifa abasidarrarentzat lanean aritu zen 870-892 urte bitartean mugako estazioetan kontrol lanak egiten. Urte bitarte horretan *Kitāb al-Masālik wa-l-Mamālik* (Bideen eta Erresumen tratatua) izeneko liburua idatzi zuen, bertan garaiko merkatal truke sare nagusiak deskribatu zituen, horien artean noski merkatari juduen inguruan ere idatzi zuen (Frenkel, 2017: 144). Frenkel-ek lan honetako pasarte bat azpimarratzen du:

*“The Roads of the Rahdhanite Jewish Merchants, who speak Arabic and Persian and Greek (Rūmī) and the languages of the Franks (Ifranj) and the Andalusians and the ṣaqāliba. They travel from East to West and from West to East by land and by sea. They import from the West eunuchs, slave-girls and slave-boys (al-khadam wal-jawāri wal-ghilmān) and embroidered silk (dibāj) and rabbit leathers and furs and swords”.* (Ibn Jurradadbi, 1889: 153–54; Frenkel, 2017: 145).

Jarraituz, Frenkel-ek ere X. mendeko Ibn Ḥawqal geografoaren beste liburuko beste pasarte bat azpimarratzen du. Hain zuzen ere, *Kitāb Ṣūrat al-Arḍ* (Munduaren formaren inguruko tratatua) izeneko liburutik (Frenkel, 2017: 144). Bertan honako hau dio:

*“In al-Andalus, there is other merchandise besides expensive cloths (tirāz) and these are usually exported to faraway places such as Khurāsān and elsewhere. Among the most famous of their merchandise are slaves; beautiful slave-girls (jawāri) and slave boys (ghilmān) who are captured in the land of the Franks (Ifranja) and Galicia (Jalikiyya, in Northern Spain) and also ṣaqāliba eunuchs. All ṣaqāliba eunuchs upon earth are imported from al-Andalus. Because when they [the ṣaqāliba] approach it [the territory of Al-Andalus], they are castrated. Those who do it are Jewish traders”* (Ibn Ḥawqal, 1938-39: 110:110; Frenkel, 2017: 145).

Beraz, pasarte hauekin argi geratzen da juduek ere parte hartu zutela mundu islamikoko esklabo salmentan eta trukean IX. eta X. mendeetan. Aldiz, merkatari juduek pixkanaka alde batera utzi zuten esklabo salmenta bi mende iraun zituen prozesu batean, hain zuzen ere, XI. eta XIII. mende bitartean. Badirudi honen atzean bi arrazoi nagusi egon zirela. Lehenak erlijioarekin lotura izan zuen. Hain zuzen ere, judaismoaren eta islamaren arteko trabek, esklabo merkatutik juduen presentzia ezabatu zuen. Bigarrena, musulmanek merkatuaren gainean izan zuten kontrolagatik izan zen. Genizako

---

<sup>6</sup> Al-Muṣṭamid ṣAlā Allāh kalifa abastarra izan zen. Kalifa bilakatu bitarte ez zuen politikan jardun. Bere iloba al-Muhtadi hiltzean kargua hartu zuen. Samarra-n ezarria, ez zuen benetako botere politikoa eduki, kaliferriaren ordezkaria zen, baina bere anaia Abū Aḥmad-ek hartzen zituen erabaki guztiak. Bere anaiak sasi-kalifaren titulua eduki zuen al-Muwaffak. Zanḡ-en errebolta eta Safariden altxamenduak bere boterea ezbaian ipini zuten. Azkenik, Bagdad-en hil zen 892an; uste da janari eta alkohol gehiegi jan eta edanak eragin izana bere heriotza (Pellat et al., 1993: 765-766).



dokumentuen arabera, esklabo sarea ez zen musulmanen monopolioa izan, baina autoritate musulmanek guztiz kontrolatzen zuten, hain zuzen ere, aktibitate ekonomiko onuragarria baitzen (Frenkel, 2017: 147).

Penintsulan, Behe Erdi Aroan, aldiz, Granadaren erorketara arte, Iberiar Penintsula iparraldeko erreinuetako kristauak izan ziren esklabo mota nagusiak (Phillips, 2010: 155). Esklaboek ere kultura arabiarra aberastu zuten beraien jatorrizko hizkuntzaren hitzak hizkuntza arabiarrean txertatuz, honela arabiar hiztegi eta lexikoa handituz; hau batez ere Iberiar Penintsulan gertatu zen (Imamuddin, 1981: 31). Esklabo espezializatuak India, Txina, Asia hego-ekialdetik eta Bizantziar Inperiotik ekartzen zituzten (Lewis, 1990: 4).

Jarraituz, esklabo saltzaileak bitan banatzen ziren, alde batetik, gizonezko esklaboak saltzen zituztenak *najjās al-ʿabīd* deiturikoak eta bestetik, emakume esklaboak saltzen zituztenak, *najjās al-ḡawāri* (Shatzmiller, 1994: 263). Hainbat testutan esklaboekiko zegoen tratua ona adierazten dute garaiko idazleek. Hala ere, De La Puente dio azken urteetako zenbait ikerketaren arabera, zenbait tabu eta klitxe egon zirela gaia ikertzerako orduan. Bere hitzetan hainbat ikerlarik ez baitute atentzio handia ipini lege islamikoaren konplexutasunean, batez ere indibiduo bakoitzaren eskubide eta betebeharren arloan, hau da, betidanik Erdi Arorako egindako murrizketa: libreak eta esklaboak. Aldiz, Gizarte Islamikoan hainbat mailatan zegoen antolatua (De la Puente, 2008: 188).

## 5. ESKLABOEN EGITEKOAK ETA ESTATUSA:

Garrantzitsua iruditzen zait lege islamikoa ondo azaltzea esklaboen egoera ulertzeko. De la Puente bereizketa bat egiten du: gaitasun juridikoen eta jarduteko gaitasunaren artean. Aurretik esan dudan moduan, indibidua da fokua mundu islamikoan eta beraz, bakoitzaren estatusaren arabera, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun ezberdinak edukiko ditu. Lege islamikoan ere arlo legala belaunaldi batetik bestera pasatzen da, aldiz, jarduteko gaitasuna ezberdina da eta honako irizpide hauetan oinarritzen dira: generoa, erlijioa, ezkontza, libre-esklabo egoera, etab. Beraz, aurretik aipaturiko jarduteko gaitasunak markatzen du estatusa gizarte islamikoan eta ez gaitasun juridikoak (heredatua dena) (De la Puente, 2008: 188).

Esklaboak sarritan kargu altuak okupatzera iritsi ziren mundu islamikoan behin eta berriz errepikatu dudan moduan, adibidez, Fatimatarak<sup>7</sup> edota Ayyubiarrek<sup>8</sup> esklaboak onartu zituzten konfiantzazko postuetan. Egoera antzekoa ikusten dute ikerlariak Genizako erregistroetan. Hain zuzen ere, bertan gizonezko esklaboak ere kargu altuko posizioetan ezartzen baitzituzten; gainera badirudi oso preziatuak izaten zirela, hona hemen adibide bat merkatari batek bere amari bidalitakoa (1104an idatziriko mezua) (Goitein, 2000: 132):

*“I arrived in Palestine before Acre was taken and thus witnessed the vicissitudes of the siege. We constantly faced danger of death, for we were near to them [the Crusaders] day and night, hearing their talk and they heard ours, and our bread was colored with blood. . . Mubarak [the slave] sends you his regards. I have no other help besides him. He saved me 10 dirhems a month— may God keep him. He is the groom, he takes care of the bedding, he is the cook, he does the washing and he looks after my wardrobe”* (Goitein, 2000: 132).

Pasarte honek argi erakusten digu esklaboek zuten balioa eta praktikotasuna. Goitein-ek dioen moduan, esklabo bat bereganatzea afera oso garrantzitsua zen.

---

<sup>7</sup> Fatimatarak Afrika Iparraldea lehenik eta ondoren Egipto 297/909-567/1171 urte bitartean gobernatu zuten dinastia ziren (Lewis, et al., 1991: 850).

<sup>8</sup> Şalāh ad-Dīn-ek (Saladino) sorturiko dinastia. VI/XII-VII/XIII. mende bitartean dinastia honek gaur egungo Egipto, Siria-Palestina arabiarra, Goi Mesopotamia eta Yemen bere esku eduki zituen (Gibb, et al., 1986: 845).

### 5.1. Nekazal/hiritar munduko esklaboak:

Lanari dagokionean bereizketa bat egin dezakegu. Alde batetik, nekazal munduko esklaboak eta bestetik, hiritar gunetako esklaboak. Lehenik, nekazal lurretakoei dagokienean, iturri juridikoetatik jaso dezakegu informazioa. Lewis-en arabera, esklabo beltzak ziren gehiengoa landa munduan, nekazaritzaz gain, meatzaritzan edota paduretan lan egiten zuten (Lewis, 1990, 18-19). Nekazal munduko eskulan hauek dudarik gabe gogorrenak ziren, adibidez Zanÿ-ko gatz lautadetako, Saharako gatz meatzetako edota Nubiako urre meatzetako lana (Lewis, 1990, 19).

Al-Andaluseko kasuan, ikerlariak uste dute Erdi Aroko gizartean gaudenez, emakume andalusiarrak izan zirela landa guneko langile nagusiak, hala ere, ez dago guztiz egiaztatua. Historiagile batzuen arabera, libre zein esklaboek burutzen zituzten lan hauek eta emakumeei etxeko jarduerak gehitu behar dizkiegu. Emakumeak ziren etxea zaintzen zutenak, umeak hezten zituztenak, sukaldatzen zutenak, etab. Katategoria sozialak baldintzatzen zuen emakumea etxeari lotua egotea. *Jādima* eta *yāriya* terminoengatik ikerlariak badakite bai emakume libre, baita esklaboek ere lan hauek egiten zituztela (De La Puente, 2010: 139).

Gizonezkoei dagokienez, Ibn Ḥawqal-ek (337/948) honako hau dio: «*En al-Andalus hay más de una explotación agrícola (ḍayʿa) que agrupa a miles de campesinos que ignoran todo de la vida urbana y son cristianos (rūm)*». Beraz, pasarte honen arabera, badakigu Kordobako administrazioak ez zuela loturarik landatar munduarekin garai honetan (IV/X. mendeetan) edo gutxi arabiartua zegoela. Bestalde, De La Puentek dioen moduan, testu honek ez digu ezer esaten balizko kristauen menpe egondako esklabotza baten inguruan. Bere ustez, landa mundua mistoa zen, hau da, esklaboek, zein libreek lan egiten zuten eremu horietan (De La Puente, 2010: 140). Orokorrean, Imamuddin autorearen arabera, nekazariak ez zuten jabetza askatasunez gozatu musulmanen ailegaerara arte (Imamuddin, 1981: 30).

Iturriekin ere beste arazo bat dugu, hain zuzen ere, badakigu esklaboek zenbait lan burutzen zituztela, baina agian, libreekin batera, edo lan puntual gisa. De La Puentek, esklabo bati buruzko datua eskaintzen du:

*“un contrato para que alguien efectúe un riego en jardín o huerto ajeno se menciona el caso de que se produzca durante el tiempo del contrato la muerte, huida o enajenación de un esclavo que trabajase en la finca, en cuyo caso el contratado se ha de comprometer a reemplazarlo.”* (De La Puente, 2010: 141).

Berak honi loturik hipotesi bat plazaratzen du; baliteke al-Andaluseko emirerria edo kaliferria denbora batez behintzat Mohamed Talbik deskribaturiko *Ifrīqiya* sistema latifundista praktikatzea, lan-indar esklaboak ekonomian garrantzia eduki zuen. (De La Puente, 2010: 141; Talbi, 1983: 193-195).

Hiritar munduari dagokionez, dokumentuetan agertzen den esklabo “mota” nagusia arabieraz *Yilliqiya* deiturikoak dira; Iberiar Penintsularen iparraldean aurkituko genituzke (De La Puente, 2010: 143; Frenkel, 2018: 145). Orokorrean, hiritar munduko esklaboek beraien jabeen konfiantza eduki behar zuten eta honelako lan bereizketa antzematen dute ikerlariak: emakumeak okin, sukaldari edo brodatzaile gisa jardungo lukete; aldiz, gizonezkoak artisau, igeltsero edo kontulari moduan. Adibidez, Basra-ko (Irak) hasierako garaian, esklabo artisauek beraien maisuen tailerretan lan egiten zuten. Artisau gehienak ez ziren arabiarak, hain zuzen ere, hirira emigraturiko artisauak izaten ziren (De La Puente, 2010: 143; Shatzmiller, 1994: 49). Emakumei dagokienean, familia aberats orotan ikusten ditugu etxeko lanak eta erizaintza lanak egiteko helburuarekin. Honetaz gain, badakigu emakume esklaboak judaismoan edo kristautasunean ez bezala, Islamak konkubinak izatea onartzen zuen (Goitein, 2000: 134).

Jarraituz, Islamak Mediterraneoan izandako buruzagitza dela eta, esklaboak tokian tokiko nekazaritza “enpresa” handietan ezartzen zituzten, honela eremu berriak okupatuz. Hala ere, beraien presentzia asko murriztu zen konkistak amaitu zirenean eta honi loturik, esklaboen salmenta indartu egin zen Europara begirantz. Hala ere, oraindik bai landatar munduan, baita hiritar munduan ere beraien presentzia izaten jarraitu zuten, hala ere, hauen betebeharra aldatu egin zen, hau da, orain esklabo gehienak arlo domestikoan edo manufakturetan lan egiten zuten. Gainera, truke sarean esklaboak trebatu egiten zituzten zenbait ofiziotan lan egiteko eta hori dela eta, entrenaturiko esklabo baten prezioa bikoiztu egiten zen (Shatzmiller, 1994: 38-39).

Honetaz gain, *al-ʿabd al-tāyir* izeneko merkatariak zeuden, normalean libreak zirenak, baina sarritan ere esklaboak zirenak. Azken hauek beste izendapen bat zuten: *al-maʿdūn li-l-tiyāra edo al-maʿdūn fī l-tiyāra*. Esklabo hauek mugitzeko askatasuna zeukaten, beraien jarduerak islamaren domeinutik kanpoko lurretan egiten zuten eta bere familia izateko aukera ere bazuten (De La Puente, 2010: 143-44; Shatzmiller, 1994: 39). Etxegintzan ere ibiltzen ziren (Shatzmiller, 1994: 213). Ehungintzari dagokionez, adibidez, Irak eta Egipton lantegiak jabetza pribatukoak ziren eta hauetan langileen artean

nahasketa ikusten da: esklaboak, lana egitera behartuak eta soldatapeko langileak. Al-Andalusen, aldiz, estatuak kontrolatzen zuen ehungintza (Shatzmiller, 1994: 244).

Esklaboak gizonezko zein emakumezko, langile populazioaren parte handia ziren. Esklaboak bere jaunak eskaturiko edozein lan bete behar zuen. Hala ere, erregistroen arabera, normalean emakumezkoak izaten ziren esklabo, populazioaren gehiengoa eta ez soilik esku-lanera mugatuta, baita finantza edo merkataritzara ere (Goitein, 2000: 147). Gainera, aurretik aipaturiko Acre-n aurkitzen den merkatoriaren adibidean ikusten den moduan, esklabo-jauin arteko erlazioa ona izaten zen sarritan eta jaunak goresten zuen esklaboaren lana.

Orokorrean, esklaboen inguruan dagoen informazioa testu puntualetatik lorturiko informazioa da. Sarritan ikerlariak ez dakite ea gauza puntualak diren edo behin eta berriz gertatzen ziren fenomenoak ziren. De la Puenteren arabera, zaila da jakitea ea zein lan burutzen zituzten libreekin batera. Beste batzuetan berak dioen moduan, izendapenekin arazoak daude, adibidez, *ahl al-ma<sup>2</sup>ādin*, terminoak meatzetako jendea esanahi du, baina ez dakigu bertako langileak libreak edo esklaboak ziren (De La Puente, 2010: 146).

## 6. ZANÛ ERREBOLTA:

ZanÛ erreboltaren kontarek garaiko errealitatea erakusten digu modu praktikobatean. Jada aipaturiko al-Ṭabarī historialariak esklaboen mugimendu honen nondik-norakoak dokumentatu zituen. Kasu erreal hau aurrean izanda interesgarria iruditzen zait hau azaltzea, hain zuzen ere, kasu praktikoa bat da, bertan landa munduko esklaboen egoera ikus daiteke eta honen aurrean zer nolako mugimenduak edo aldarrikapenak dauden ikus ditzakegu. Hala ere, ez genuke orokortu beharko Irakeko eremu honetan gertaturikoa.

Hasteko, ZanÛ-en matxinada 869-883 urte bitartean Irak hegoaldean gertaturiko matxinada izan zen. ZanÛ-ak Afrika ekialdeko esklabo beltzak ziren, *Šaṭṭ al-ʿArab*-eko gatz-lautadetan lana egitera behartu zituztenak (Furlonge, 1999, 7; Lewis, 1990: 19). Ikerlarien arabera, IX. mendeko esklabotzari erreparatzen badiogu, landa mundukoa askoz gogorragoa zen esklabotza domestikoarekin alderatzen badugu (Furlonge, 1999: 7). Bernard Lewis-ek dioen moduan, landa munduko esklabotzaren inguruan informazioa gutxi dago, baina ZanÛ-eko erreboltak informazioa eskaintzen digu landa munduko egoeraz (Lewis, 1990: 18).

Jarraituz, garaiko testuingurua ulertu beharra dago. Kaliferri Abassi-a ekonomia krisi batean murgildurik zegoen. Hori dela eta, 869. urtean al-Muʿtazz-ek<sup>9</sup> kalifa izateari utzi zion; zortzi urteetan bost kalifa egon ziren eta kalifa berriek ezarritako presio fiskalak ZanÛ errebolta ahalbideratu zuen, ez baitziren gai izango soldaduei zegokien soldata ordaintzeko (Furlonge, 1999: 7). Beste alde batetik, ʿAlī ibn Muḥammad-ek<sup>10</sup> esklaboei hitza eman zien beraien egoera ekonomikoa hobetuko zuela, hau da, esklaboei dirua eta etxeak emango zizkiela (Furlonge, 1999: 8). Hala ere, ʿAlī-k ez zuen esklabotzarekin amaitu nahi, adibidez, ZanÛ-ei beraien menpe egongo ziren esklaboak eskaini zizkien (Furlonge, 1999: 8).

Matxinadaren kausak ikertzerako orduan, hainbat ikuspuntu plazaratu dira. Hasteko, esklaboen askatasun nahia azpimarratu beharra dago. Hala ere, esklaboek ez zuten soilik

---

<sup>9</sup> Abū ʿAbd Allāh al-Muʿtazz Muḥammad ibn al-Mutawakkil kalifa abassiarra izan zen. Bere aurrekaria bere lehengusua izan zen al-Mustaʿīn deiturikoa. Bere lehengusuaren botere aldia Samarran gertaturiko borrokaldi baten ostean amaitu zen. Hain zuzen ere, bera abdikatzera behartu zuena. Horregatik, 866. urtean al-Muʿtazz kalifa izendatu zuten eta lau urte eta erdiz egon zen boterean, baina ez zen kaliferria gidatzeko gai izan (Pellat, 1993: 793-794).

<sup>10</sup> ʿAlī ibn Muḥammad al-Zanʿī, Warzanīn herrian jaiotako errebeldea izan zen, hain zuzen ere, ZanÛ errebolta gidatu zuena (Schacht, et al., 1998: 388).

parte hartu matxinadan. Zany terminoa hainbat talde identifikatzeko erabilia izan zen: esklaboak, liderrak, ofizialak, errebolta parte hartu zuten askeak... Al-Ṭabarī<sup>11</sup> garai hartako idazleak hainbat termino erabili zituen esklabo beltzak izendatzeko: Zany, Sudan, *ʿabid*, *gulām* eta *jawāl*. Sudan hitzaz gain, gainontzekoek esklabotza edo menpekotasuna adierazten dute (Furlonge, 1999: 10).

Zany-en kasuan, sarritan eztabaidatu da ea errebolta edo iraultza bat izan zen. Thodore Noldekeren arabera, landa munduko esklaboak ziren, fenomeno arraroa mundu islamikoan. Bere ustez, esklaboen arteko harremanak komunitate sentimendua eratu zuen eta beraien jaunen aurkako erremina. Jarraituz, autoreak dio hasiera batean buruzagirik gabeko errebolta bat izan zela, aldiz, *ʿAlī ibn Muḥammad*-en promesek “esklabo armada” indartsu bat eratu zuten estatu Abassia asaldatur (Noldeke, 1963: 149). Bestalde, M. A. Shabin historialariaren aburuz, errebolta gain, “klase” eta arazo ekonomikoak azpimarratu beharra daude. Kontuan hartu behar da Irak hegoaldea Abassientzat gune ekonomiko garrantzitsua zela eta truke sareetatik zerga bidez lortzen zituzten irabaziak ezinbestekoak zirela (Shabin, 1976: 101).

Jarraituz, Popović ere ados dago errebolta politikoa (botere harremanak) eta soziala (bizi baldintzak hobetzeko nahia) izan zela, baina ezin daitekeela konparatu Aro Garaikideko iraultza sozial batekin (Popović, 1999: 153); adibidez, Shabin-ek azpimarratzen duen “klase borroka” alde batera utziko luke Popović-en teoriak. Furlongeraren arabera, aldiz, errebolta bat baino gehiago izan zen, faktore politiko, ekonomiko, erlijioso, sozial, arraza eta ideologikoen beraien eragina izan zuten (Furlonge, 1999, 12).

Errebolta ondo politiko eta sozialei dagokienez, ez dirudi epe luzera aldaketa ugari ekarri zituenez, hau da, ez zuela egitura soziala hankaz gora jarri. Era berean, Popović-en aburuz, ez zuen eragin handia izan Behe Irak-eko nekazaritza eta irrigazioetan (Popović, 1999: 154). Hala ere, esklaboen zatia hainbat ondorio positibo ere egon ziren. Lehenik, Behe Irak-eko landa antzu/lehorraren abandonua eta honek zekarren langue handien desagertzea. Honek, Popović-en arabera, esklaboen bizi-baldintzak hobetu

---

11 Al-Ṭabarī Amul-en jaioa (224-5/839) eta Bagdad-en hila (310/923), legean eta tradizioan aditua zen, baina historiagile eta *Qurʾān*-aren iruzkingile gisa gehiago ezagutzen da. Zorionez, bere lan ugari gaur egunera arte iritsi dira. Bere familia jatorri onekoa zen eta honi esker, ikasle gisa mundu islamikoan zehar bidaiatzeko aukera eskaini zion. Uste da 12 urte zituelarik bere etxea utzi eta Persia iparraldera joan zela ikasketak egitera. Historiaz gain, beste gai batzuen inguruan ere idatzi zuen. Etikan eta poemagintzan ere murgildu zen (Bearman et al. 2000:11).

zituen eta Abassi-en armadan erroldatu zirenak, ez ziren aurreko esklabo egoerara itzuli (Popović, 1999: 154).

## **7. ONDORIOAK:**

Laburbilduz, Erdi Aroko mundu islamikoko esklabotzak gizarte hartako elementu guztiak biltzen zituen: erlijioa, legea, piramidea, menpekotasuna, estatusa, bete-beharrak, erreboltak, trukeak, miseria, zintzotasuna... Esklabotza fenomeno orokorra izan zen, *Dār al-Islām* guztian zehar zabaldua zegoena.

Mundu islamikoa ez zen fenomeno global honetatik kanpo geratu. Hala ere, jada azaldu dudan moduan, esklaboak dituen gizartea izango litzateke, eta ez alderantziz. Orokorrean, esan daiteke autoritate-menpekotasun, jabe-esklabo harremanak gizartean bere arrastoa utzi zuela, honen adibide lanean zehar aipaturiko aipuak. Hala ere, Historiako aro guztietan gertatzen den moduan, informazio eskasa aurkitzen dugu pertsonaia handietatik urruntzen garen heinean.

Bestalde, mundu islamikoko esklabotza ez zen guztiz ezberdina izan. Egia da hainbat iturri klasikotan esklabo eta jabearen harreman ona azpimarratzen dutela, edota kargu altuko esklaboei aipamena egiten dietela. Hala ere, lanean zehar behin eta berriz errepikatu dudan moduan, ez dugu burutik kendu behar esklaboak zirela, eta honek zekartzan ondorioak pairatzen zituztela. Ezin dugu mundu islamikoko esklabotza goraiatu, azken finean gainontzeko herri edota erlijioek praktikatzen zituzten esklabotzatik ez baitzen horrenbeste aldentzen.

Lanaren zailtasunei dagokienean, ikerketari hainbat buelta eman behar izan dizkiot zenbait alditan. Esaterako, landa munduko esklabotzaren inguruan ez dut informazio ugari aurkitu, ezta landan lana egitea suposatzen zuen gogortasunaren inguruan ere. Hala ere, Zanÿ erreboltaren adibidea, landa giroko testuingurua ulertzeko baliagarria dela iruditzen zait. Nolabait, Irakeko landa gunetako esklaboen egoera erakusten duelako eta agian hau beste gune geografiko batzuetan ere gertatuko litzatekeelako, baina aurretik esan dudan bezala, informazio hutsune ugari daude.

Ondorioz, esklaboak zituen gizarte honetan, *Qurʾān*-aren eta lege islamikoaren aginduak eta gomendioak jarraituz, oinarri teologikoaren arabera, menpekotasunean oinarrituriko bizitza eratu zen, jabeak iturri sakratuak zituen esklaboaren etorkizuna erabakitzeke eta beraz, honen bizitzako ibilbidea bideratzeko.



Amaitzeko, galdera ugari oraindik zabalik daude: emakumeak ohaide izateaz gain, landa munduko esklabo nagusiak ziren? Zanÿ-ko errebolta altxamendu isolatua izan zen edo behin eta berriz gertatzen ziren fenomenoak? *Qur'ān*-ak esandakoa guztiz betetzen zen edo jabe bakoitzak nahi zuena egiten zuen? Iturri klasikoetan aurkitzen diren esklabojabe elkar-harreman onak isolatuak dira ala zabalduak zegoen errealitatea zen? Oraindik hainbat galdera erantzuteko daude, eta beraz, asko dago ikertzeko.

## **8. BIBLIOGRAFIA:**

- 1- Austen, R. A. (1987) *African economic history, internal development and external dependency*. Londres: James Currey.
- 2- Bearman P.J., Bianquis, T.H., Bosworth, C.E., De Brujin, J.T.P., Dias Farinha, A., Van Dozel, E., Van Ess, J., Heinrichs, W (Eds.). (2000). *Encyclopaedia of Islam, Volume X (Tāʾ-U[.])*. Leiden: Brill.
- 3- Clarence-Smith, W.G. (2006). *Islam and the Abolition of Slavery*. Londres: Hurst & Company.
- 4- De La Puente, C. (2008). Slaves in Al-Andalus Through Mālikī Wathāʾiq Works (4th–6th Centuries H / 10th–12th Centuries CE). Marriage and Slavery as Factors of Social Categorisation. *Annales Islamologiques*, 42, 187-212.
- 5- De La Puente, C. (2010). Mano de obra esclava en Al-Andalus. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie III, Historia Medieval*, 23, 135-147.
- 6- Dejong, G. E. (1934). Slavery in Arabia. *The Muslim World*, 24 (2), 126-44.
- 7- Finley, M. I. (1980). *Ancient Slavery and Modern Ideology*. New York: The Viking Press.
- 8- Franz, K. (2017). Slavery in Islam: Legal norms and social practice. *Slavery and the Slave Trade in the Eastern Mediterranean (c. 1000–1500 CE)*. Ed. Amitai, R eta Cluse, C. Turnhout: Brepols, 51-141.
- 9- Frenkel, M. (2017). The Slave Trade in the Geniza Society. *Slavery and the Slave Trade in the Eastern Mediterranean (c. 1000–1500 CE)*. Ed. Amitai, R eta Cluse, C. Turnhout: Brepols, 143-161.
- 10- Furlonge, N. D. (1999). Revisiting the Zan̄y and Re-Visioning Revolt: Complexities of the Zan̄y Conflict (868-883 AD). *Negro History Bulletin*, 62 (4), 7-14.
- 11- Gibb, H.A.R., Kramers, J.H., Lévi-Provençal., Schacht, J. (1986). *The Encyclopaedia of Islam A-B. Volume I*. Leiden: Brill.
- 12- Goitein, S. D. (2000). *A Mediterranean Society, Volume I. The Jewish Communities of the Arab World as Portrayed in the Documents of the Cairo Geniza, Economic Foundations*. Berkeley: University of California Press.
- 13- Goitein, S. D. (2010). *Studies in Islamic History and Institutions*. Leiden; Boston: Brill.
- 14- Hunwick, J., Powell, E. T. (2002). *The African diaspora in the Mediterranean lands of Islam*. Princeton: Markus Wiener.

- 15- Imamuddin, S. M. (1981). *Muslim Spain, 711-1492 A.D.* Leiden: Brill.
- 16- Lenski, N. (2018). Framing the Question: What Is a Slave Society?. *What Is a Slave Society?: The Practice of Slavery in Global Perspective*. Ed. Lenski, N eta Cameron, C. Cambridge University Press: Cambridge, 15–58.
- 17- Lewis, B. (1990). *Race and Slavery in the Middle East: An Historical Enquiry*. New York: Oxford University Press.
- 18- Lewis, B., Pellat, Ch., Schacht. (1991). *The Encyclopaedia of Islam: Volume II, C-G*. Leiden: Brill.
- 19- Maíllo, F. (1996). *Vocabulario de Historia Árabe e Islámica*. Madril: Ediciones Akal.
- 20- Schacht, J., Lewis, B., Pellat, C. (1998). *The Encyclopaedia of Islam: Volume II*. Leiden: Brill.
- 21- Noldeke, T. (1963). *Sketches from Eastern History*. Beirut: Khayat.
- 22- Patterson, O. (1985). *Slavery and Social Death*. Cambridge, Massachusetts, Londres: Harvard University Press.
- 23- Pellat, C., Heinrichs C., Bosworth, C.E., Van Donzel, E.J. (1993). *Encyclopedia of Islam, Volume VII (Mif-Naz)*. Leiden: Brill.
- 24- Phillips, W. D. (2010). La historia de la esclavitud y la historia medieval de la Península Ibérica. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie III, H. a Medieval*, 23, 149-165.
- 25- Phillips, W. D. (2013). *Slavery in Medieval and Early Modern Iberia*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- 26- Pipes, D. (1981) *Slave soldiers and Islam: the genesis of a military system*. New Haven: Yale University Press.
- 27- Popović, A. (1999). *The Revolt of African Slaves in Iraq in the 3<sup>rd</sup>/9<sup>th</sup> Century*. Princeton: Markus Wiener Publishers.
- 28- Rāḡib, Y. (2002). *Actes de vente d'esclaves et d'animaux d'Égypte médiévale I*. Kairo: Cahier des Annales islamologiques 23, Institut francais d'archéologie orientale.
- 29- Rosenthal, F. (1960). *The Muslim conception of freedom prior to the nineteenth-century*. Leiden: Brill
- 30- Shabin, M. A. (1976). *Islamic History: A new Interpretation, 750-1055*. Cambridge: Cambridge Univ.

31- Shatzmiller, M (1994). *Labour in The Medieval Islamic World*. Leiden; New York; Koln: Brill.

32- Talbi, M. (1983) *Droit et économie en Ifrīqya au IIIe/IXe siècle. Le paysage agricole et le rôle des esclaves dans l'économie du pays», en Études d'histoire ifriqiyenne et de civilisation musulmane médiévale*. Tunisia: Université de Tunis.

## **9. LEHEN MAILAKO ITURRIAK:**

1- Arberry, A. (1995). *The Koren Interpreted*. Londres: Oxford University Press.

2- Ibn Ḥawqal. *Kitāb Ṣūrat Al-Ard /Opus geographicum*. Ed: Kraemers, J.H, (1938–39). *Bibliotheca geographorum Araicorum*, 2, 2 vol. Leiden: Brill.

3- Ibn Jurradāqbih, Abū al-Qāsim ʿUbayd Allāh ibn ʿAbd Allāh. *Kitāb al-Masālik wa'l-Mamālik (Liber viarum et regnorum)*. Ed. and trans: Jan de Goeje, M. (1889). *Bibliotheca geographorum Arabicorum*, 6. Leiden: Brill.